

# HITZA

GOIO RAMOS



## «Auskalo nondik nora eramango nauen amona Josefaren historiak»

**ALAITZ MELGAR**

TENE MUJIKA BEKAREN IRABAZLEA

Tene Mujika beka irabazi du barakaldarrak, eta bere amona Josefa Agirre azpeitiarraren bizitza ikertzeko baliatuko du hori. Melgarrek azaldu duenez, «amonaren bizitza gure familian misterioa izan da; ezkutuan egon da» // 6

**Irita-Amilubiko lurrak funtzio sozialera bideratu beharra aldarrikatu du EH Bilduk**

Zarauzko EH Bilduk kritikatu duenez, Udal Gobernuak erakundearen jabetzakoak diren lur horiek sustapen pribatuko etxebizitzak egiteko nahi ditu, eta plan orokorra aldatzeko proposamena eramango du bihar udalbatzarrera // 2

**Cristobal Balentziagaren 8.000 marrazki eta dokumentu erosi ditu Jaurlaritzak // 3**

**Zumaia** Datorren igandean jokatuko dute Zumaian XI. Txakurkrosa, iazko zirkuitu berean // 4

### Hileko zozketak

**20**

**TOPIC** Tolosaldeko nazioarteko txotxongilo zentroa

Bi sarrera bikoitz

[Eskaintza zenbakia: **20**]

943-65 04 14  
Euskal Herria plaza  
TOLOSA  
www.topicolosa.com



**21**

**ALBAOLA** Itsas kultur faktoria

Bi sarrera bikoitz

[Eskaintza zenbakia: **21**]

943-39 24 26  
PASAI SAN PERO  
www.albaola.com



**+**

**HITZA**kideen TXOKOA

**22**

**EKAIN FAST + EKAIN ABENTURA**  
**EKAINBERRI** museoa

Bi sarrera bikoitz

[Eskaintza zenbakia: **22**]

943-86 88 11  
ZESTOA  
info@ekainberri.com  
www.ekainberri.com





Zarauzko EH Bilduko zinegotzi Ainara Landa, Itziar Murua eta Ion Arozena. ARITZ MUTIOZABAL

## «Amillubiko lurrak funtzio soziala betetzera bideratu behar dira osotasunean»

Bihako udalbatzarrean Irita-Amillubiko egungo plan orokorra aldatzeko proposamena bozkatuko dute •EH Bilduk «onartezina» dela dio Udal Gobernuak etxebizitza pribatuak eraiki nahi izatea

### –ARITZ MUTIOZABAL

Zarauzko Udala Irita-Amillubi eremuaren jabea da bere osotasunean, baina Udal Gobernuak egungo plan orokorra aldatzeko proposamena eramango du urtarileko osoko bilkurara, bihar egingo den udalbatzarrera. Hala aurreratu zuen Zarauzko EH Bilduren udal taldeak udalbatzar aretoan ostiralean eginiko agerraldian. «Irita-Amillubiko lur guztiak udalarenak dira, eta, hala ere, etxebizitza pribatuak eraikitzea proposatzen du bertan, herriarenak diren lurrak espekulaziorako erabiltzea bultzatuz», adierazi zuen erabateko desadostasuna azalduz koalizio abertzaleko bozeramaile Itziar Murua.

Egun indarrean dagoen plan orokorraren arabera, Amillubiko lurrak osorik etxebizitza sozialerara bideratzea zehazten duela gogoratu zuen EH Bilduk, eta eremuaren garapenerako zehaztapenak bosgarren puntua irakurri zuen: «Bizitegi-izae-rako arearen hirigintzako eraikigarritasunaren %100a erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitza kolektiboetarako erabiliko da». Murua esan zuen hori dela aldatu nahi dutena.

Koalizioaren ustez, «onartezina» da udalarenak diren lur publikoak jabe pribatuei saltzea etxebizitza pribatuak egiteko. «Ezin da eskubide baten betekizuna irabazi asmoa duen erakuntza enpresen negozio interesen menpe utzi. Zarautzek etxebizitzaren arazoari eman diezaiokkeen konponbidea ez da Salberdin gehiago egitea. Gure ustez, Amillubiko lur horiek funtzio soziala betetzera bideratu behar dira bere osotasunean», arrazoitu zuen bozeramaileak.

Badakite lurrak salduta udalak dirua irabaziko lukeela, baina diru hori ez jasotzea «lehenetsu-nezko inbertsio» gisa hartu beharko litzatekeela iritzi diote, eta lurren jabetza mantendu behar litzatekeela. «Are gehiago, Zarauzko gazte eta ez hain gazteek gai honetan duten egungo larrialdi egoera ikusita, eta Zarauzko Udalak duen egoera ekonomiko ona dela kontuan izanda».

### «Plan integrala behar da»

EH Bilduren iritzi, herritar guztiei aitortu behar zaie bere herrian «etxebizitza duina, egokia eta eskuragarria» izateko aukera, eta «administrazio publikoen lana da, baita Zarauzko Udalare-

na ere, eskubide hori bermatzeko esku hartzea». Hala eta guztiz ere, koalizioak argi du etxebizitza berriak eraikitzearekin ez dela nahikoa. «Etxebizitza larrialdiari erantzuteko plan integrala behar da, eraikuntzaz gain beste neurriak ere kontuan hartuko dituen», azpimarratu zuen Murua.

Neurri horien artean, alokairuko etxebizitzaren parkea bultzatzearen eta indartzearen beharra ikusten du, eta horretarako etxebizitza publikoetara bideratuko diren lur publikoak «behar-beharrezkoak» direla gaineratu du. «Sektore publikoaren esku hartzea behar da, gardentasunean eta orekan oinarrituta, eta hau ezin da promotore pribatuen esku utzi».

Zentzu horretan, EH Bilduk Udal Gobernuaren proposamenaren aurka bozkatuko du biharko bilkuran, eta, era berean, gainerako alderdiak herrian bizitzeko aukera eskaintzeko etxebizitza politika integral baten inguruan hausnarketa egitea gonbidatu nahi ditu. «Izan ere, herrian geratzen den lur publiko apurra eraikuntza enpresei salduta, nekez aurkituko baitoigu irtenbide duin bat gai honi».

## Tiloak plataforma «triste eta haserre» dago mozketak aurrera darraielako

Nafarroa kaleko obren planteamendua «zentsugabea» dela kritikatu du •Udalari leporatu dio ez dela «entzuteko gai izan» eta «gobernatzeko modu autoritarioa» duela

### –JABI GONZALEZ TOSTON

Nafarroa kaleko ezkiak babestearen aldeko Tiloak plataforma «triste eta haserre» agertu da aipatu kaleko ur saneamendurako obren lehen faseak aurrera jarraitzen duelako Seitximeneta kalerantz, eta ondorioz, ezkien mozketak ere. Plataformak ohar bidez kritikatu du obren planteamendua «zentsugabea» dela, eta udalari berau birplanteatzeko hainbat arreta dei egin badizkiote ere, ez dela «entzuteko gai» izan. Hala, «gobernatzeko modu autoritarioa» duela salatu dute.

Halaber, kontraesankortzat jo dituzte udalaren politika berdeak, duela bi aste aurkeztutako Arboretum proiektua zuzenean aipatuta: «Inguruko mendietan hainbat proiektu dituzten zuhaitzien babesle gisa aurkezten dute beren burua. Erosi eta landatu bai, hori egin dezakete, baina daukaguna, hortxe dagoena, eustearen aukera ez dute kontuan hartzen. Mendian kokatutako etorkizuneko zuhaitz hipotetiko horiek, Arboretum, etiketatzen ahaleginak egin ditzakete, baina gure kaleetako egunerokoa alaitzen diguten zuhaitzei buruz informazio di-

daktikoa jaso eta zabaldu ahal izateko ez dituzte babestu, etiketatu edota katalogatu nahi».

Horren harira, Tiloak plataformak irmo adierazi du «herri berdea» nahi duela, eta «ez asfalto inguratzen duen hesi berde bat».

### Eguzki Izarren ere

Plataformak kritikatu du ur saneamenduko obren barruan egindako zuhaitz mozketak ez direla Nafarroa kalean egindako baka-rrak izan: «Nafarroa kalearen bukaeran, etxebizitzak eraikitzeko obretan, biribilgunetik gertu [Eguzki Izar eremuan], basotxo bat osatzen zuten zuhaitz ugari moztu dituzte». Zentzu horretan, salatu dute udala ez dela zuzen aritu, eta ez duela Zarauzko Hiriko Antolamenduko Plan Orokorraren 7.3.12 artikuluan jasotakoa errespetatu.

Edonola ere, Tiloak plataformak orain arteko biderei etsitako diola hitz eman du: «Aipatutako obra eta proiektuei arretaz erreparatzen jarraituko dugu; baita gure jardunaren eta planteamenduen berri ematen ere». Aurki hitzaldi informatibo bat antolatzeko asmoa dute, non liburuxka bat aurkeztuko duten.



Zuhaitzak moztuta Nafarroa kalean. JABI GONZALEZ TOSTON

# Balentiagaren 8.000 marrazki eta dokumentu eskuratu dituzte

Eusko Jaurlaritzak erosi ditu, eta Euskadiko Artxibo Historikoan daude  
● Getariako Balentziaga museoa lagin bat ikusteko aukera egongo da udaberrian

## -ONINTZA LETE ARRIETA

Parisko Balenciaga Etxearekin lotutako dokumentu-funts garrantzitsua aurkeztu zuen herenegun Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailak Bilbon, Euskadiko Artxibo Historikoan. Izan ere, Cristobal Balentziaga Getariako jostunak eta haren taldeak egindako marrazkiak eta dokumentuak eskuratu berri ditu Jaurlaritzak.

Bilduma handia da, 8.362 marrazki eta dokumentu baitira guztira, gehienak 13x21 zentimetrokoak. Egoera onean daude horiek, jakinarazi dutenez. Aurkezpenean azpimarratu zuten, gainera, ez dela ezagutzen beste artxiborik halako tamaina eta garrantzia duenik. Izan ere, «munduko beste museo bakar batek ere ez du gordetzen mota horretako Balentiagaren dokumentu-funts espezifikorik, eta gaur egungo Balenciaga enpresak bakarrik du funts handiagoa, baina publikoak oro har ezin du bertako artxiboetan sartu».

Gainera, esku publikoetan egongo den mota horretako Balentiagaren lehen bilduma izango da. «Gainerakoak esku pribatuetan daude, zehazki, Balenciaga Paris markaren esku; beraz, ondarearen ikuspegitik, oso aberasgarria da euskal kultura ondarea osatzeko», azpimarratu zuen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Bingen Zupiriak.

Aurkezpenean harekin batera izan zen Balentziaga Museoko zuzendari Miren Vives, eta horrek ere bildumaren garrantzia azpimarratu zuen: «Bozeto-bilduma hau bultzada handia da museoaren funts dokumentalarentzat», esan zuen. Nazioartean ere jarri zuen arreta Vivesek: «Erosketa honekin, Balentziaga

Museoari lotutako dokumentu ondarearen erreferentzialtasuna eta nazioarteko proiektzioa sendotu eta indartu egiten da».

Zupiria sailburuak balio handia eman zion Jaurlaritzak eskuratutako funtsari: «Erosketa honek Euskadiko dokumentu ondarea aberasten du. Dokumentu funts honek Getariako jostunaren lan egiteko modua eta jostuntza tailerretako lan prozesua

**Bozetoetatik milak baino gehiagok ehun laginak dituzte itsatsita**

**Dokumentuak ondo kontserbatzea eta horiek digitalizatzea dira egin beharrekoak**


ulertzen lagunduko digu, XX. mendearen erdialdeko gizartearen zati baten testigantza izateaz gain».

Dokumentuak Euskadiko Artxibo Historikoan daude, eta aurrerago Getariako museora eramango dute lagin bat. Izan ere, aurreikusita dago udaberri honetan ezagutaraztea museoan bildumaren zati bat.

Aurrez, bi erakundeek elkarlanean jardungo dute, dokumentuak behar bezala kontserbatzeko batetik, eta horiek digitalizatzeko, bestetik.

## Askotariko bozetoak

Bilduman askotariko bozetoak daude. Batzuk lan-bozetoak dira, eta bertan modeloak, osagarriak, ehunak, atelier ardurduna eta bestelako informazio osagarria zehazten dira. Bozeto horietatik milak baino gehiagok ehun laginak dituzte, eta gehienak 1960ko hamarkadakoak dira, azaldu dutenez.



Euskadiko Artxibo Historikoaren esku gelditu diren bildumako marrazkietako bi. Goikoak ehun lagina ere badu. EUSKO JAURLARITZA

# %18

**CRISTOBAL BALENTZIAGAK ESKUZ EGINDAKO OHARRAK ETA MARRAZKIAK DIRA**

Eusko Jaurlaritzak esan du bozetoak ez daudela sinatuta, baina egindako azterketen arabera, 8.362 dokumentuetatik %18 direla Getariako jostunarenak. Horietatik erdia baino gehiago, %60, atelierreko bozetoak direla zehaztu du Jaurlaritzak.

Aurretiko ideien bozetoak ere baditu bildumak, gehienak 1950eko hamarkadakoak, «Balentziagak garai hartan hasitako lerro emblematikoenetako batzuen saiakuntza eta zirriborroekin».

Antzerkirako figurinak –1940ko hamarkadaren erdialdekoak–, kapelagintzari eta osagarriari buruzko bozetoak eta beste marrazkiak eta dokumentu pertsonal batzuk ere biltzen ditu bildumak. Baita aurkezpenetarako bozetoak, data eta leku zehatzak adierazten dituztenak –horiek ere 1950eko hamarkadakoak– eta lan aginduak eta eskuz idatzitako hainbat dokumentu ere.

## Egiletza eta jatorria

Eusko Jaurlaritzak zehaztu du bozeto bat bera ere ez dagoela egiletza norena den zehazteko moduan sinatuta, baina «egindako azterketen arabera», bildumaren % 18 Cristobal Balentziagaren eskuz egindako oharrak eta marrazkiak dira; horietatik, %60 atelierreko bozetoak dira. Gainerakoak, oraindik identifikatu gabe dauden figurigile eta kolaboratzaile batzuek eginak dira.

Jaurlaritzak azaldu duenez, bilduma Lorenzo Riva diseinatzaile italiarrak zeukan bere jabetzan. Antza, Riva Balenciaga enpresako zuzendari artistikoa izan zen 1980tik 1982ra bitartean, «eta enpresatik ateratzeko –Bogart taldeari enpresa saltzea negoziatzen ari ziren– kalte-ordain ekonomiko bat eta materialetan ordaindutako beste bat negoziatu zituen». Material hori da Jaurlaritzak aztertu eta erosi ondoren Euskadiko Artxibo Historikoan gorde duena.

Bildumako marrazki eta dokumentu gehiago ikusgai daude HITZAREN webgunean: [urolakosta.hitza.eus](http://urolakosta.hitza.eus)

# Igandean jokatu dute Zumaiako XI. Txakurkrosa

Iazko zirkuitu bera prestatu dute aurten ere • 70 bikote inguruk parte hartuko dutela aurreikusi dute • Izena emateko epea bihar gauerdian amaituko da

## -JUAN LUIS ROMATET

Datorren igandean jokatuko da Zumaiako XI. Txakurkros Lasterketa. Antolatzaileen aurreikuspenen arabera, txakurraz eta haren jabeaz osatutako 70 bat bikote bertaratuko dira Aitzuri frontoiaren parean kokatutako den irteera puntura. Izenak emateko epea bihar gauerdian itxi dute.

Iazko edizioan estreinatutako zirkuitu bera mantenduko dute aurtengo lasterketan ere. Hala, aurten ere, Aitzuri frontoiaren parean kokatuko dituzte lasterketa irteera eta helmuga. «Lehen Aitzuri kalean jartzen zen irteera eta Aizkorri kalean, Branka eraikinaren parean, helmuga. Horrek auzuneko zirkulazioaren eragin handiagoa zuen, eta ikusleek ere zailtasun handiagoak zituzten proba jarraitzeko. Iaz frontoi aurrera eraman genuen;

kalea zabalagoa izanda, pandemiak behartutako distantziak ere errazago gorde zitezten. Aldaketak erantzun ona izan zuen, eta horregatik bertan mantendu ditugu irteera eta helmuga», azaldu du Zumaiako Kirol Patronatuko kudeatzaile Antxon Alberdik.

Lasterketa 11:00etan hasiko da, eta Otezuri parean Basustarako bidea hartuko dute, zirkuituari bi buelta eman eta frontoi parera itzultzeko. 8.300 metroko distantzia egingo dituzte, guztira.

Eguralditako hotza dago iragarri iganderako, eta horri Basustara zelaietan aurkituko duten basagehitu beharko zaio. Horregatik, aurten proba gogorra izatea aurreikusten da.

Izena *kronoak.com* webgunean eman daiteke bihar gauerdian arte. «Gaur egun 50 bat parte



Parte hartzaile bat Basustarako aldapan. ONINTZA LETE ARRIETA

hartailek dute izena emanda, baina egia da izen ematea mantso joaten dela. Ez dugu sekula 90 parte hartzaile baino gehiago izan, iaz ere 70 bat bikote izan genituen; aurten ere antzerako kopurua izango dugula uste dut», adierazi du Alberdik.

Behin proba nagusia bukatzen, 12:00etan, hurrengo lasterketa hasiko da. Horiei txakurraz eramatea gomendatu diete antolatzaileek. Izena momentuan bertan eman beharko dute, euro bat ordainduta. «Iaz frontoiaren aurrean dagoen belardian jarri-

## Zabaldute herri lasterketarako izen ematea

Kirol eskaintzarik ez da faltako Zumaiako otsailaren 25ean. Goizez, afizionatu mailako txirrindularitzako Zumaiako Saria jokatu da; arratsaldean, berriz, Zumaiako 38. Herri Lasterketa. Azken proba horretarako izen ematea zabalik da dagoeneko.

15:45ean hurrengo eta gazte txoen probak jokatu dituzte; 17:00etatik aurrera, berriz, proba handia. Aurten urteetan bezala, bi distantzietan parte hartzeko aukera izango dute korrikalariak: 5.100 metrokoan eta 10.200 metrokoan. Antolatzaileek azaldu dutenez, ohiko zirkuitua izango du lasterketaren aurtengo edizioak ere. Irteera eta helmuga Eusebio Gurrutxaga plazan kokatuko dituzte.

Izena *kronoak.com* webgunean bidez eman ahal izango da. Distantzia luzea aukaritzen dutenek 13 euro ordainduko dituzte; distantzia laburreko korrikalariak, berriz, 11 euro. Izena emateko azken eguna otsailaren 22a izango dela jakinarazi dute.

tako zirkuitu batean egin genuen lasterketa. Aurten ere gure asmoa hori zen, baina azken egunotan eskola berria egiteko hesiak utzi dituzte toki horretan. Horregatik, egun bertan erabakiko dugu non egin. Puntanoetan edo frontoi aurrean».

# Padeleko pistak egokitzeko lanak hasiko dituzte

## -J.L. ROMATET

Lubaki kiroldegiko padel pistak araudira egokitzeko lanak abiatu ditu Zumaiako Kirol Patronatuak azken asteotan. Lan horien helburua euri urak hobeto jasotzea da, patronatuak azaldu duenez, baita une batzuetan sortzen ziren putzuak saihestea ere. Aurten bertan estaldura hobetzeko beste lan batzuk ere egingo dituztela iragarri du.

Bi padel pista ditu Lubaki kiroldegia eraikinaren kanpoaldean, tenis pistaren alboan. Kanpoan egonda, euririk arazo bat baino gehiago sortu izan ditu urte hauetan guztietan. Hasiera batean, euri ura bi pisten arteko estolda zulo baten bidez jasotzen



Bi padel pista ditu Lubaki kiroldegia. JUAN LUIS ROMATET

zen. Euria, baina, pista baten alboan dagoen eskailera batzuetatik ere sartzen zen, eta horren ondorioz, pista hori urez betetzen zen zenbaitetan. Arazo hori konpontzeko asmoarekin, urak jasotzeko lanak egin dituzte kiroldegiko bertako mantenimenduko langileek eta udal brigadak elkarlanean.

Pisten itxitura ere aldatuko dute. «Aurretik zuen itxitura ez zegoen araudiaren barruan, eta araudi hori errespetatzen duen itxitura bat jarriko dugu orain», azaldu du Antxon Alberdik Kirol Patronatuko gerentea.

Beste lan batzuk ere egingo dituzte urtean zehar padeleko pistak hobetzeko. Hala iragarri du

Alberdik: «Estalkia hobetzeko lanak egingo dira. Orain duenak ez du oso-osorik estaltzen, euririk pista busti egiten da, eta orain erabat itxi nahi dugu. Azterketak egiten gabiltza gaur egun».

Alberdiren arabera, azken urteetan gero eta erabiltzaile gehiago ditu padelak, eta herriarrek ez ezik, beste herrietakoek ere erabiltzen dute. «Hemen inguruan Getarian eta Orion daukete padel pistak, eta azken horretakoak ez du estalkirik. Gero, hurbilenak Elgoibarren eta Donostian egongo dira. Padelak gero eta jende gehiagok praktikatzen duen kirola da, eta orain pista egokia izango dugu herrian».

# Kiroldegiko frontoiaren teilatuko obrak esleitu ditu Zestoako Udalak

Bigarren saiakeran lortu du erakundeak lanak adjudikatzea: Proviser Iberica eta Idenort enpresek osatutako ABEak egingo ditu lanak, 1.160.220 euroko aurrekontuarekin.

–**MAILO OIARZABAL** Zestoa

Kiroldegiko pilotalekuaren teilatua berritzeko lanak esleitzea lortu du, bigarren saiakeran, Zestoako Udalak. Iazko ekainean atera zituen lanak lehiaketa publikora erakundeak, baina enpresa bakar bat ere ez zen aurkeztu eta hutsik gelditu zen lehiaketa hura. Azaroko udalbatzarrean aho batez onartu zituzten lehiaketaren deialdi berriaren oinarriak, moldatuta eta prezioak eguneratuta, eta joan den ostegunean egin zuten ezohiko udalbatzarrean onartu zuen udalak lanen adjudikazioa.

Bigarren deialdira bi enpresak aurkeztu dituzte proposamenak, Artzamendi SAK eta Proviser Iberica eta Idenort enpresek osatutako Aldi Baterako Enpresak (ABE); eta azken horri adjudikatu dizkio lanak udalak. Bigarren deialdirako aurrekontua %15 igota, 1.274.843 eurotan atea-



Zestoako kiroldegia. NEREA URANGA

ra zituen lizitaziora lanak udalak, baina azkenean merkeago aurrekontuarekin, «lehiaketara aurkeztutako aurrekontuaren %7,02ko beherapenarekin», Udal Gobernak nabarmendu duenez.

Kiroldegiko pilotalekuaren amiantozko teilatua eta ondoko estalpea desmuntatu, eta egurrezko habeen gainean onarrituko den hegal bateko estalpe be-

rria eraikiko dute adjudikatu berri duten proiektuaren bidez. Estalpe berriaren azalera eguzki plakak jartzeko baliatuko dute, eta «instalazio horrek ekoiztuko duen energiaren zati bat sortzear den energia komunitateari zeesioan uztea aztertuko» du Zestoako Udalak.

Kiroldegiko frontoiaren estalkia berritzeko lanak bost hilabeteren osatzea aurreikusi du erakundeak.

# Kobaz Koba probarako entrenamendua egingo dute larunbatean


–**JULENE FRANTZESENA**

Zestoa

Otsailaren 12an, igandez, egingo dute aurtengo Kobaz Koba Trail mendiko lasterketa, eta probarako prestatzeko entrenamendu saioa antolatuko dute lasterketa antolatzaez arduratzen diren Agiro mendiko klubak eta Arazi enpresak.

Zestoarrei zuzendutako entrenamendua datorren larunbatean egingo dute. Saio horretan Artzei izeneko hamabost kilometroko ibilbidea egiteko aukera izango dute herritarrek oinez nahiz lasterketa. Doakoa izango da saioa, baina parte hartu nahi dutenek gaurko eman beharko dute izena [info@kobazkoba-trail.com](mailto:info@kobazkoba-trail.com) helbide elektronikora mezua idatzita.

Entrenamendua 09:00etan hasiko da, Agiroko kideen ongietorriarekin. Irteera, berriz,



Iazko Kobaz Koba. ANARTZ IZAGIBRE

09:15ean izango da, eta hiru orduko itzulia egingo dute. Saioa bukatzean hamaiketako egingo dute entrenamenduan parte hartzen dutenek.

## Bingen Zupiriaren hitzaldia izango da gaur Zestoan

**ZESTOA** // Zestoako EAJK antolatuta, Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuak hitzaldia eskainiko du gaur, Zestoako Alonderoko aretoan. 19:00etan hasiko da Zupiriaren solasaldia, eta hark «Euskadi mundu berriaren aurrean» kokatuko du politikoki, izen bera jarri dioten hitzaldian.

## Ageda bezperako bertso afarirako txartelak, salgai

**ZESTOA** // Otsailaren 4an, larunbatez, egingo dute Santa Ageda bezperako bertso afaria Zestoako Gure Txokoa elkarteak; afa-lostean, Jone Uria eta Jon Maia bertsolariak arituko dira bertsoetan mahai bueltan. Dagoeneko salgai daude bertso afarirako txartelak Laiak dendan eta Portalen, 35 eurotan. Era berean, Zestoan urtero santa eskean ateratzen den taldeak adierazi du osatu dutela dagoeneko taldea, eta izen emate epea itxiztat jo dute.

## Hilaren 31rako barreterapia saioa antolatuko dute

**ZESTOA** // Portale kultur elkarteak barreterapia saioa antolatuko du hilaren 31rako. Manex Beristain berreterapeutak gidatuko du saioa. «Norberaren errespetu eta askatasunetik, gozamen eta sormenarekin bat egingo dugu» azaldu du Beristainek. Saioa Alonderon izango da, 18:00etan. Parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena 635 75 39 85 telefono zenbakira deituta.

## Errezilen esku lan tailerrak antolatu dituzte asteazkenean

**ERREZIL** // Saiaz gizarte zerbitzuetako mankomunitateak antolatuta esku lan tailerrak egiten dituzte Errezilen, asteazkenean, 15:00etatik 16:00etara bitartean. Borondegiko eraikinean dagoen liburutegian biltzen dira. Hil honetan eta urtarrilaren erdira arte paper birziklatuarekin esku lanak egiten ari dira. Otsailaren erditik martxoaren bukarrera arte, berriz, gantxiloa landuko dute. Izena emateko gizarte zerbitzuetara deitu behar da: 646 47 84 14 telefono zenbakira.

# Aizarnazabalgo Erlauta auzorako errepidean babesa jarriko dute

–**ANDONI ELDUAIEN**

Aizarnazabal

Aizarnazabalgo Udalak jakinarazi duenez, Erlauta auzorako errepidean babesa jarriko du erakundeak. Udalak adierazi du auzoko baserriarekin egindako eskaera izan dela auzorako bidean babes neurriak ipintzearena, eta hari erantzun egindako diotela lanak hori eginda. Errepidearen hasiera «arriskutsua» dela adierazi du udalak, eta «segurtasuna bermatzeko» jarriko dute errepideko bazter-babesa.

Udalaren arabera, lanek 5.000 euro inguruko aurrekontua izango dute, eta aurreikuspenak betetzen badira, hilabeteren buruan amaituta izango dira lanak.



Erlauta auzorako errepidea. AIZARNAZABALGO UDALA



GOIO RAMOS

## «Gure amonaren bizitza misterio bat izan da familian»

**ALAITZ MELGAR** TENE MUJIKA BEKAREN IRABAZLEA

Euskal Herriko historia hurbila arakatzeko Tene Mujika beka irabazi du barakaldarrak, eta bere amona Josefa Agirreren bizitza ikertzeko baliatuko du; azpeitiarra zen Agirre.

### -AITZIBER ARZALLUS

Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak ematen duten Tene Mujika beka Azpeitiarekin lotura duen gai bat jorratzeko izango da aurtengoan. Euskal Herriko historia hurbila arakatzeko proiektuak saritzen ditu beka horrek, fikziozkoak ez direnak, eta aurtengo laguntza Alaitz Melgarrek (Barakaldo, Bizkaia, 1984) eskuratu du. Bere amona Josefa Agirreren azpeitiarraren bizitza ikertzeko baliatuko du beka Melgarrek, eta urtebete epea izango du horretarako.

### Nolatan bururatu zitzaizun zure amona Josefa Agirreren bizitza ikertzea?

Gure amonaren bizitza misterio bat izan da gure familian, ezkutu egon den istorio bat. Neska me ibili zen dirudunen etxeetan, eta gero, Ingalaterrara alde egin zuen eta han haurdun gelditu zen. Ez zen sekula ezkondu eta guraso bakarra izan zen. Pentsa, nire ama 1955ean jaio zen, eta garai hartan ezkongabea eta ama bakarra izatea bekatu mortala zen. Hori besterik ez dugu jakin

izan; guk ez genion galdetzen eta berak inoiz ez zuen ezer kontatu. Beti sortu izan dit jakinmina historia horrek, amonaren eta amaren historia ez ezik, nirea ere badelako, baina familian horren ondo gordetako sekretua izanik, orain arte ez naiz ausartu ezer galdetzera.

### Zure amonak ezer kontatzen ez bazuen, zure amak ere ez zuen askorik jakingo bere aitari eta bere haurtzaroi buruz...

Ez, eta horregatik edo beste arrazoren batzuegatik, baina nire amaren eta amonaren arteko harremana beti izan da nahiko korapilatsua eta zaila. Nire amaren nortasun agirian jartzen zuen Ingalaterran jaioa zela eta gertukoenek bazekiten hor atzean bazela istorio bat, gutxienez kuriozkoa, baina inoiz ez dugu jakin izan nire amaren aita nor izan zen. Nire amak sekula ez zuen bere aita ezagutu.

### Nolatan erabaki duzu orain hori ikertzen hastea?

Beti gustatu izan zait idaztea, beti nahi izan dut idazlea izatea, eta orain dela hiru bat urte, zer-

bait idatzi behar nuela esaten hasi nintzaion neure buruari. Halaxe, eleberri bat idazten hasi nintzen beste kutsu batekoa, baina joan den irailean Tene Mujika bekaren berri izan nuen, eta ikusi nuen perfektua zela nire amonaren bizitza ikertzeko eta kontatzeko.

### Beka orain eman dizute, beraz, ikerketa lanik mardulena egiteko izango duzu oraindik; baina, honezker, zerbaitetan hasita izango zara...

Beka eskatzeko ikertu asmo duzun horren inguruko aurkezpen txiki bat egin behar izaten da, eta oraingoz, horixe da egin dudana. Amaren familian galdezka ibili naiz; zehazki, nire amaren izeba batekin hitz egiten egon nintzen, amonaren ahizpa gazteenarekin, Azpeitikoa bera. Haren testigantza izan da Tene Mujika beka eskatzeko egin dudana proposamenaren oinarria.

**Behin beka lortuta, nola bideratuko duzu ikerketa?**  
Urtebete epea daukat amonaren bizitza ikertzeko eta idazteko. Tene Mujika bekari esker sor-

tutako lanak ezin du fikziozkoa izan, hori da beka jasotzeko baldintzetako bat; beraz, erabaki dut ikerketaren emaitza biografia formatuan aurkeztea, biografia horren barruan lanketa literatura eginda.



**Garai hartan ezkongabea eta ama bakarra izatea bekatu mortala zen»**

**«Badakit antzerako bizipenak izango zituzten emakume asko egongo direla»**

**Datorren urtebetean buru-belarri ikerketara eta idazketara jartzeko modurik ba al daukazu?**

Nahiko nuke urtebetez honetara jartzea, baina ez. Irakaslea naiz Iralen, irakasleei euskara irakasten aritzen naiz, funtzionarioa naiz, eta ez daukat lana albo ba-

tera uzterik ikertzen hasteko; beraz, nola edo hala, bi gauzak uztartu beharko ditut. Lehendik ere kontziliaziorako nahikoa lan izaten ez badugu, orain lan gehigarri bat izango dut esku artean, baina, egia esan, gustura egingo dudan lana izango da. Badakit denbora asko eskatuko didala, liburu asko irakurri beharko ditudala garai hartako testuingurua aztertzeko, artxiboetara jo beharko dudala, agian Ingalaterrara joan ere bai... Auskalo nondik nora eramango nauen amona Josefak.

### Aurrez sekula egin al duzu gisa honetako ikerketarik?

Filologoa naiz, ez naiz historialaria, eta sekula ez naiz aritu horrelako lanetan. Hala ere, lagun nazaketan ezagunak eta lagunak baditut, gisa honetako lanetan ibiliagoak diren historialariak eta, Tene Mujika sarira aurkezterako ere haiengana jo nuen aholku eske. Beraz, alde horretatik lasai nago, inguruan badaudalako bideratuko nauen jendea. Dena dela, haiek lagunduko didaten arren, neuk egin beharko dut lana. Urtebete honetan gauza berri asko ikasi beharko ditut.

### Zailtasunak zailtasun, erronka polita duzu esku artean, ezta?

Bai, bai, gogotsu nago eta ilusioa egiten dit familiaren historia argitzeko lanketa egiteak. Jakitun naiz agian ez naizela iritsiko nahiko nukeen bezain sakonera, egia oso-oso argitzera, baina ziur naiz orain dakiguna baino gehiago jakinda bukatuko dudala abentura hau guztia. Eta niri ez ezik, iruditzen zait Azpeitiko familiari ere gustatuko zaiola orain dakitena baino zerbait gehiago jakitea.

### Zure amonaren historia partikularra ikertuko duzu zuk, baina antzerako historia duten emakume gehiago ere izango da ziurrenik...

Bai eta, hain zuzen ere, hori izan zen nire proposamena. Nik kasu konkretu bat kontatuko dut, eta argi dago bere berezitasunak izan ditzakeela, baina jakitun naiz antzerako bizipenak izango zituzten emakume asko egongo direla Euskal Herrian, amona Josefa asko egongo direla hor zehar, eta horien guztien familientzat ere baliagarria izan daitekeela nik egingo dudan ikerketa lana. Gainera, ziur naiz ikerketak azaleratuko dituela duela mende bat emakumeek pairatzen zuten zapalkuntza, dirudunen etxeetara neska me joaten zirenen bizi baldintzak eta beste hamaika kontu.

## Otsailaren 4an izango da Gau Txori argazki rallyaren XIII. edizioa

– J. FRANTZESENA

Gau Txori argazki rallyaren XIII. edizioa izango da aurtengoa, eta otsailaren 4rako, zapatua, jarri du hitzordua Azpeitiko Argazki Elkarteak. Memoria txarteldun kamera digitala duen edonork parte har dezake lehiaketan, eta izena rallyaren egunean bertan eman beharko dute parte hartzaileek, 19:00etatik 20:00etara bitartean, elkarteak Dinamo sormen gunean duen egoitzan (Soreasu auzunea). Argazkilarik bakoitzak hamar euro ordaindu beharko ditu.

Argazkilariek memoria txartel hutsa eraman beharko dute rallyra, eta argazkiak Azpeitian atera beharko dituzte, zuri-beltean edo koloretan eta JPG formatuan, eta horiek ahalik eta kalitate onena izan beharko dute.

Rallya 01:00etan bukatuko da Azpeitiko Argazki Elkartearen egoitzan, argazkilariek argazki txartelak hustuta. Lehiakide bakoitzak, gehienez, 36 irudi aurkeztu ahal izango ditu –kontrolleko argazkia barne–, eta antola-

tzaileek adierazi dutenez, irudiak ezingo dira manipulatuta.

Rallyan gaia jarrita atera beharko dituzte irudiak parte hartzaileek, eta argazki elkarteak kideek azaldu dutenez, argazkien «berezkotasuna, sormena eta teknika» izango ditu epaimahaiak kontuan.

Antolatzaileek emandako gai bakoitzeko argazki bat aurkeztu beharko dute argazkilariek otsailaren 9a baino lehen; irudiak [argazkiakaa@gmail.com](mailto:argazkiakaa@gmail.com) helbidera bidali beharko dituzte, partaidearen zenbakia eta gai bakoitzeko argazkiaren zenbakia zehaztuta.

Sari banaketa ekitaldia noiz egingo duten ez dute zehaztu oraindik, baina lau sari izango dira eskuragai: bilduma onenaren saria (150 euro eta garaikurra), bigarren sailkatuaren saria (100 euro eta garaikurra) eta hirugarren sailkatuaren saria (70 euro eta garaikurra). Era berean, sari horiek jasotzen ez dituen herriko lehen sailkatuak ere garaikurra eskuratuko du.



Gau Txori argazki rallyko sariak. HITZA

## Otsailean hasiko da Arkupehotsaken berritutako edizioa

Proiektuan parte hartuko duten lau lagunek, txandaka, egonaldia egingo dute Azpeitiko Dinamo sormen gunean eta hainbat musikari izango dituzte bidelagun prozesu horretan.

– JULENE FRANTZESENA

Hautaketa epea urtea bukatzerako zehaztuta, Azpeitiko Arkupehotsak egitasmoan parte hartuko duten lau musikari gazteek otsailean ekingo diote bideari. Hain zuzen ere, proiektuan parte hartuko duten lau lagunek, txandaka, sormen egonaldia egingo dute Dinamoan, eta hainbat musikari izango dituzte bidelagun prozesu horretan.

Sormen egonaldia egiten aurrena Maialen Aristegi Lasarte-Oriako (Gipuzkoa) musikaria izango da. Hark Eñaut Gaztañagaren laguntza teknikoa eta Gartxot Unsainen gidaritzza artistikoa jasoko ditu prozesuan, eta egindako lana Sanagustin kulturunean plazaratuko du otsailaren 5ean, 18:30ean.

### Plazaz haratago

Gainerako kideek ere datozen hilabeteetan egingo dituzte Dinamo sormen guneko egonaldiak, eta haien zuzeneko datuak zehaztu ditu dagoeneko Kulturaz kooperatibak. Zehazki, otsailaren 26an Sanagustingo arkupeko agertokian izango da Lemak taldea, martxoaren 26an Lorea Zulaika *Kadira* musikaria eta apirilaren 23an Enerhitz.

Kulturaz kooperatibak 2017an



Arkupehotsaken parte hartu duten musikariak, horien bidegile izan diren sortzaileak eta Kulturazeko kideak. KULTURAZ KOOPERATIBA

martxan jarritako proiektua da Arkupehotsak, eta lau edizio osatuta, berrituta iritsi da sortzaile berrien plaza izateko sortutako egitasmoaren bosgarren aldia. Urte hauetan guztietan dozenaka talde izan dira Sanagustingo arkupeko agertokian zuzenekoak eskaintzen. Dena den, zuzenekoetatik haratago, sormen eta transmisio proiektu osatua bilakatu du Kulturazek.

Gainera, hastear den Arkupehotsak egitasmoaren bidez, Dinamo sormen guneko soinuaren eremuko ateak lehen aldiz

zabalduko dituzte. Sormen egonaldia han bertan egingo dute musikari gazteek, eta beraz, han izango dute musika sortzeko, ikasteko, prestatzeko eta plazaratzeko aukera. «Doinu berrien plaza ez ezik, laborategia, ikasteko eta esperimentatzeko espazioa izango da Arkupehotsak», azaldu dute Kulturazeko kideek. Halaber, sortzaile berriei jardunerako tresnak eskaintzea ez ezik, inguruko sortzaileei balioa ematea eta belaunaldi berriei plaza eskaintzea ere badira proiektuaren xedeak.

## Eskelak

Hilberriak  
Urteurrenak  
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,  
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / \*Harpidedunentzat: 60 €  
merkeago HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / \*Harpidedunentzat: 86 €  
ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / \*Harpidedunentzat: 30 €

\*Harpidedunak HITZako bulegotik pasa  
Bez barne

**Argitaratzailea:** Urolako Komunikazio Taldea Koop. Elk.  
**Lege Gordailua:** SS-0188-04. ISSN. 1697-8587  
**Zuzendaria:** Nerea Uranga.  
**Helbidea:** Azpeitia, Soresu 1, 20730, 943-81 38 41.  
**Zarautz:** Araba kalea 27, 20800, 943-89 00 17.  
**Posta elektronikoa:** urolakosta@ukt.eus.  
**Webgunea:** urolakosta.hitza.eus.  
**Zuzendariordea:** Aritz Mutiozabal.  
**Publizitate:** Urola Kostak: 673 69 90 95.  
**Zarautz:** 607 61 52 39. zarautz@ukt.eus.  
**Orio-Aia:** 607 49 87 23. orio@ukt.eus.  
**Zumaila:** 685 71 20 90. zumaila@ukt.eus.  
**Getaria:** 607 49 87 23. getaria@ukt.eus.  
**Azpeitia:** 607 49 87 25. azpeitia@ukt.eus.  
**Azkoitia:** 607 49 87 27. azkoitia@ukt.eus.  
**Zestoa-Aizarnazabal-Errezil-Beizama:** 607 49 87 27. zestoa@ukt.eus.



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aia, Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Getaria, Errezil, Orio, Zarautz, Zestoa eta Zumaiak

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):  
**943-30 30 35**



Temperatura  
**V 10°**  
**A 2°**

Mareak

Itsasgora 06:56-19:23  
 Metroak 4,44-3,97  
 Itsasbehera 00:35-13:06  
 Metroak 0,41-0,29

zarauzkohitza.eus / urolakosta.hitza.eus

## Kultur ekitaldiz blai iritsi da negua Oriora

Igandean hasi zen 'Ainarak' dokumentalaren proiektioarekin, eta martxoaren 31ra bitartean izango da neguko kultur egitaraua. Adin guztietako herritarrei zuzendutako hamazazpi ekitaldi biltzen ditu.

### - AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA Orio

Urteko lehen hiruhilekoan Orion izango den kultur eskaintza zabalaren berri eman du udalak. Gainera, jakinarazi du egitaraua bera jasotzen duen esku orria herriko etxe guztietara banatu duela, herritarrek eskura izan dezaten.

Urtarrilaren 22an, pasa den igandean, hasi zen aurtengo lehen hiruhileko kultur programazioa, *Ainarak* dokumentalaren proiektioarekin eta Anne Etxegoien kontzertuarekin. Martxoaren 31 bitartean luzatuko da neguko kultur egitaraua, eta adin guztietako herritarrei zuzendutako hamazazpi ekitaldi biltzen dituela nabarmendu du Orioko Udalak: ipuin kontaketa, antzerkia, erakusketak, hitzaldiak, kontzertuak, ikuskizunak... Ekitaldietarako sarreak eta gonbidapenak astebete lehenago jarriko dituzte eskuragarri Kultur Etxean.



Danbolin musika eskolako dantza ikasleen 2022ko ikuskizuna. AITZIBER ARZALLUS

### Egitaraua

#### URTARRILA

**Urtarrilaren 25etik otsailaren 9ra.** Kirolaz haratago erakusketak, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak antolatuta. Kultur Etxean egongo da ikusgai, bertako ordutegian: astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:30era.

#### OTSAILA

**Otsailak 1.** Kirolaz haratago erakusketaren harira, Ibon Oregi kirolariak hitzaldia emango du, 17:30ean hasita, Kultur Etxean. Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak antolatutako hitzordua da.

**Otsailak 3.** *Peru krokodiloa* ikuskizuna izango da, Kantu Koloreren eskutik. 17:00etan, Karela kiroldegian, Orioko Herri Ikastolako antolatuta.

**Otsailak 4.** *larunbata.* Santa esnean aterako dira haur eta gaz-

teak, Orioko Herri Ikastolako eta Errikotxiak antolatuta. 18:00etan, ikastolan hasiko dute ibilbidea.

**Otsailak 11, larunbata.** *Eresia* antzezlanak, Oier Zuñigaren eskutik, 19:00etan Kultur Etxean. Sarrerak salgai, bost eurotan.

**Otsailak 17, ostirala.** *Aho bete hortz* ikuskizuna, Ekain pailazoaren eskutik, 18:00etan Kultur Etxean. Sarrera bi eurotan.

**Otsailak 18.** Inauteriak ospatuko dira herrian. Egitaraua aurrerago jakinaraziko du udalak.

**Otsailak 20, astelehena.** Miriam Mendoza ipuin kontalaria-  
**MARTXOA**  
**Martxoak 12, igandea.** Danbo-

lin musika eskolako ikasleen dantza emanaldia. 17:30ean, Karela kiroldegian.

**Martxoak 18, osteguna.** *Sex Sua* musikala, Andoni Mutiloaren eskutik. 19:00etan, Kultur Etxean. Sarrerak bi eurotan.

**Martxoak 19, igandea.** Gipuzkoa Dance Contest kiroldegian, WMDEren eskutik.

**Martxoak 20, astelehena.** Mi-

riam Mendoza ipuin kontalaria-  
**Martxoak 27tik 31ra.** Danbolin musika eskolako ikasleen kontzertuak, Kultur Etxean.

**Martxoaren 31, ostirala.** Danbolin musika eskolako eta Lezoko banden kontzertua, 19:00etan, herriko plazan.

**Zozketak** **HITZA** kideen **TXOKOA**

**29**

SASKIBALOI

**GUUK GIPUZKOA BASKET-CLUB OURENSE BALONCESTO PARTIDARAKO SARRERAK**

Urtarrilak 28, 19:00etan  
 [Zozketa zenbakia: 29]  
 Urola Kostako Hitzak sarrera bikoitza zozkatuko du HITZAKIDEEN artean.

VS

Zozketan parte hartzeko deitu: **943-55 01 64** zenbakia edo **webguneo**  
**ZOZKETAK atalean izena eman.** Epea: urtarrilak 26, 12:00ak arte.  
 Seriduren izena urtarrilaren 27an, ostirala, argitaratuko dira.